**2021-5-31 UDAL BATZARRA**

**1. 2021eko apirilaren 26ko egindako bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5).
KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**2. Alkatetzaren ebazpenen berri ematea.**

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

**3. Alkatetzaren 2021-4-27ko ebazpenen berri ematea:**

**. Gobernu Batzarreko kide eta seigarren alkateorde izendatzea.**

**. Ordezkaritza berezia kirol arloan.**

**. Gazteria Batzorde Aholkulariko lehendakaritza.**

**ALKATETZAREN EBAZPENA**

Ander Curiel Ayuso jaunak Eibarko Udaleko zinegotzi kargua hartu duenez Udalbatzak 2021eko apirilaren 26an egindako bilkura arruntean, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen

**31-5-2021 PLENO MUNICIPAL**

**1. Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 26 de abril de 2021.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5).
VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**3.- Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía de 27-4-2021 de:**

**. Nombramiento de miembro de la Junta de Gobierno y sexto Teniente Alcalde.**

**. Delegación especial en materia de deportes.**

**. Presidencia de la Comisión Asesora de Juventud.**

**RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA**

Una vez que D. Ander Curiel Ayuso adquirió la plena condición de Concejal del Ayuntamiento de Eibar, en la sesión ordinaria celebrada por el Pleno Municipal el 26 de abril de 2021 y, en aplicación de

apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3. artikuluak eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzio eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.5.b), 47 eta 52. artikuluek ematen dizkidaten eskudantziez baliatuta,

**HAUXE EBATZI DUT:**

**AURRENA.-** Ander Curiel Ayuso jauna Tokiko Gobernu Batzarraren kide izendatzea; eta, aldi berean, seigarren Alkateorde.

**BIGARRENA.-** Curiel Ayuso jaunari kirol arloko ordezkaritza berezia ematea.

**HIRUGARRENA.-** Jaso beza erabaki honek legeak eskatutako argitarapena.

**ALKATETZAREN EBAZPENA**

Ander Curiel Ayuso jaunak Eibarko Udaleko zinegotzi kargua hartu duenez Udalbatzak 2021eko apirilaren 26an egindako bilkura arruntean, Udal Araudi Organikoaren 12. artikuluak ematen dizkidan eskudantziez baliatuta,

las atribuciones que me son conferidas por los artículos 23.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y 43.5.b), 47 y 52 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales,

**RESUELVO:**

**PRIMERO.-** Nombrar a D. Ander Curiel Ayuso miembro de la Junta de Gobierno Local, así como sexto Teniente de Alcalde.

**SEGUNDO.-** Realizar una delegación especial en materia de deportes en el Sr. Curiel Ayuso

**TERCERO.-** Dese la publicidad exigida legalmente a la presente Resolución.

**RESOLUCIÓN DE ALCALDIA**

Una vez que D. Ander Curiel Ayuso adquirió la plena condición de Concejal del Ayuntamiento de Eibar, en la sesión ordinaria celebrada por el Pleno Municipal el 26 de abril de 2021 y, en aplicación de las atribuciones que me son conferidas por el artículo 12 del Reglamento Orgánico Muncipal,

**HAUXE EBATZI DUT:**

**AURRENA.-** Gazteriaren Aholku Batzordeko lehendakaritza Ander Curiel Ayuso jaunari eskuordetzea, Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrearen ordez.

**BIGARRENA.-** Jaso beza erabaki honek legeak eskatutako argitarapena.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

**RESUELVO:**

**PRIMERO.-** Delegar la presidencia efectiva de la Comisión Asesora de Juventud en D. Ander Curiel Ayuso, en sustitución de Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga.

**SEGUNDO.-** Dese la publicidad exigida legalmente a la presente Resolución.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**4. Alkatetzaren 2021-5-12ko Ebazpenaren berri ematea: Batzorde Aholkulari batzuen lehendakaritza ordezkatzea.**

**ALKATETZAREN EBAZPENA.**

Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna gaixorik aurkitzen denez, eta Kultura, Euskara eta Enba Batzorde Aholkulariak eskuordekaturik dituenez, honen bitartez

EBAZTEN DUT:

Batzorde Aholkulari horien Lehendakaritza Patricia Arrizabalaga Larrañaga andreari ESKUORDETZEA Lejardi jauna itzuli arte.

**4. Dación de cuentas de Resolución de Alcaldía de 12-5-2021: Delegación de Presidencia de diferentes Comisiones Asesoras.**

**RESOLUCIÓN DE ALCALDIA**

Ante la situación de enfermedad de D. Francisco Javier Lejardi Galarraga, y dado que tiene delegadas las Presidencias de las Comisiones Asesoras de Cultura, Euskara y Enba; por la presente

RESUELVO:

DELEGAR la Presidencia de dichas Comisiones Asesoras en Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga hasta la reincorporación del Sr. Lejardi.

Egin dudan eskuordetze hauek 2021eko maiatzaren 11tik izango dute ondorioa.

Estas delegaciones tendrán efectos desde el 11 de mayo de 2021

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**5. PSE-EE (PSOE) Udal taldeak hainbat batzorde aholkularitan egindako bokal-aldaketaren berri ematea.**

**5. Dación de cuentas de cambio de vocales del grupo municipal PSE-EE (PSOE) en diferentes comisiones asesoras.**

PSE-EE (PSOE) Udal taldeak aurkeztu duen idatzi honen berri eman da:

Se da cuenta del siguiente escrito del grupo municipal Grupo municipal PSE-EE (PSOE):

Nik, Ana Telleria Echeverriak, PSE-EE (PSOE) Udal taldeko koordinatzaileak, Francisco Javier Lejardi Galarraga batzordeetako gure bokalen aldaketa hauen berri ematen dut:

Yo, Ana Telleria Echeverria, Coordinadora del Grupo municipal PSE-EE (PSOE), comunico los siguientes cambios en las vocalías de las comisiones, consecuencia de la baja de Francisco Javier Lejardi Galarraga:

**GAZTERIA BATZORDE AHOLKULARIA**

Patricia Arrizabalaga Larrañaga and.

**ZERBITZU ETA AZOKETAKO BATZORDE AHOLKULARIA**

Alberto Albistegui Zamacola jn.

**TRAFIKO ETA GARRAIO BATZORDE AHOLKULARIA**

Alberto Albistegui Zamacola jn.

**COMISION ASESORA DE JUVENTUD**

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga

**COMISIÓN ASESORA DE SERVICIOS Y MERCADOS**

D. Alberto Albistegui Zamacola

**COMISIÓN ASESORA DE TRÁFICO Y TRANSPORTE.**

D. Alberto Albistegui Zamacola

**EGO IBARRA BATZORDE AHOLKULARIA**

Ana Telleria Echeverria and.

**EUSKARA BATZORDE AHOLKULARIA**

Ander Curiel Ayuso jn.

**ENBA Batzorde Aholkularia**

Ander Curiel Ayuso jn.

**COMISIÓN ASESORA DE EGO IBARRA**

Dña. Ana Telleria Echeverria.

**COMISIÓN ASESORA DE EUSKARA**

D. Ander Curiel Ayuso.

**Comisión Asesora de ENBA**

D. Ander Curiel Ayuso.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**6. Alkatetzaren proposamena, Udalak Haurreskolak Patzuergoan izango den udal ordezkaria izendatzekoa.**

**6. Propuesta de la Alcaldía relativa a la designación de representante municipal en el Consorcio Haurreskolak.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 8 - PSE-EE (PSOE).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 11 - Eibarko EAJ-PNV (5). EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 8 - PSE-EE (PSOE).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 11 - Eibarko EAJ-PNV (5). EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Haurreskolak Patzuergoaren Estatutuen 11. artikuluak xedatutakoa kontuan hartuta,

Alkatetzaren proposamena ikusita, 2021eko maiatzaren 18koa, Haurreskolak Patzuergoan Udalak izango duen ordezkaria izendatzekoa.

Considerando lo dispuesto por el artículo 11 de los Estatutos del Consorcio Haurreskolak.

Vista la propuesta de Alcaldía, de 18 de mayo de 2021, relativa a designación de representante municipal en el Consorcio Haurreskolak.

Kontuan hartuta 2021eko maiatzaren 24ko Erakunde, Lurralde eta Lege-gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos e Institucionales, de 24 de mayo de 2021.

Osoko Bilkurak, ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**Bakarr**a.- Jon Iraola Iriondo Eibarko alkate jauna izendatzea Eibarko Udalaren ordezkari Haurreskolak Partzuergoan.

**ACUERDO**

**Único.-** Designar a D. Jon Iraola Iriondo, alcalde de Eibar, representante del Ayuntamiento de Eibar en el Consorcio Haurreskolak.

**7. Alkatetzaren proposamena, Kirol Patronatuko Zuzendaritza Kontseiluko kidea izendatzekoa.**

**7. Propuesta de la Alcaldía relativa a la designación de vocal en el Consejo Rector del Patronato de Deportes.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 8 - PSE-EE (PSOE).
KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 11 - Eibarko EAJ-PNV (5). EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 8 - PSE-EE (PSOE).
VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 11 - Eibarko EAJ-PNV (5). EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Kirol Patronatuaren Estatutuen 9. artikuluak xedatutakoa kontuan hartuta,

Considerando lo dispuesto por el artículo 9 de los Estatutos del Patronato de Deportes.

Alkatetzaren proposamena ikusita, 2021eko maiatzaren 18koa,

Vista la propuesta de Alcaldía, de 18 de mayo de 2021.

Kontuan hartuta 2021eko maiatzaren 24ko Erakunde, Lurralde eta Lege-gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos e Institucionales, de 24 de mayo de 2021.

Osoko Bilkurak, ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Bakarra.-** Alberto Albistegui Zamacola jauna izendatzea Kirol Patronatuko Zuzendaritza Kontseiluko kide, Ana Telleria Echeverria andrearen ordez.

**Único.-** Designar a D. Alberto Albistegui Zamacola como vocal en el Consejo Rector del Patronato de Deportes, en sustitución de Dña. Ana Tellería Echeverria.

**8. Kreditu aldaketarako seigarren espedientea, Udal Aurrekontuko partiden arteko transferentziengatik.**

**8. Sexto expediente de modificación de créditos por transferencias entre partidas del Presupuesto municipal.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 5 - Eibarko EAJ-PNV.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 5 - Eibarko EAJ-PNV.

2021. jardunaldirako Udal Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izanik, aintzat hartu da ondoren zehaztuko diren kontzeptuetan egin beharreko gastuen premia eta urgentzia.

Ikusita, bai Udal Aurrekontuaren kreditu-transferentzien Seigarren espedientearen inguruan Alkatetzak egin duen proposamena, bai espediente horren inguruan kontu-hartzaile jaunak egindako txostena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak ezarritakoaren arabera egindakoa.

Ondorioz, kontuan hartuta 2021eko maiatzaren 24ko Ogasun eta Ondareko Lan Batzordearen aldeko irizpena

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

**ERABAKIA**

Udalaren aurrekontuko kreditu-transferentzien seigarren espedientea onartzea, kopuru hauek dituena:

Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2021, se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el Sexto Expediente de Transferencias de crédito del Presupuesto Municipal y el informe del Interventor sobre el expediente realizado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 24 de mayo de 2021.

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

Aprobar el Sexto expediente de Transferencias de crédito del presupuesto municipal cifrado en las siguientes cantidades:

**LABURPENA KAPITULUKA**

**I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA**

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arruntak. | 18.000,00 |
| **Guztizkoa, gehikuntzak beste** | | **18.000,00** |

**II. KREDITUEN GEHIKUNTZA**

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arruntak | 18.000,00 |
| **Guztizkoa, gehikuntzak beste** | | **18.000,00** |

**9. Konpromisoko kredituen egoera onesteko proposamena, 2022 eta 2023 urteetarako alokairurako dirulaguntzak kreditu egoki eta nahikoaz zuzkitzeko.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 19 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

Ubaldo Ortiz Hirigintzako aholkulari juridikoak egin duen txostena ikusita, non, 2016. urtetik hona udalerriko gazteei alokairurako eman zaizkien dirulaguntzen deialdia berriz ateratzeko helburua

**RESUMEN POR CAPITULOS**

**I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS**

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4. | Transferenc. corrientes | 18.000,00 |
| **Total igual a los aumentos** | | **18.000,00** |

**II.CREDITOS EN AUMENTO**

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Transferencias corrientes. | 18.000,00 |
| **Total igual a los aumentos** | | **18.000,00** |

**9. Propuesta de aprobación del estado de Créditos de Compromiso para dotar de crédito adecuado y suficiente las subvenciones al alquiler para los años 2022 y 2023.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 19 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

A la vista del informe presentado por el asesor jurídico de Urbanismo, Ubaldo Ortiz, en el que expone el objetivo de volver a convocar las subvenciones al alquiler dirigidas a las personas jóvenes

azaltzen duen, aurrekontu-aurreikuspenak egokitzea planteatzen da.

del municipio que se han venido concediendo desde el año 2016, se plantea la adecuación de las previsiones presupuestarias

Era berean, Funtsen Kontu-hartzaileak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan, hauxe dio: “Kreditu egoki eta nahikoaren zuzkidurari dagokionez, 2021. urteko aurrekontuan badago dirulaguntza hau emateko izendatutako partida bat.” Zehazki, 1.0200.480.01.152.30 “Familiei” partidak 2021ean Udalak finantzatuko dituen 18.000 euroak biltzen ditu.

Se da cuenta así mismo del informe emitido por el Interventor de Fondos, en el que expone “en cuanto a la dotación de crédito adecuado y suficiente, en el presupuesto del año 2021 existe una partida consignada para la prestación de la subvención. En concreto, la partida 1.0200.480.01.152.30 “A Familias” recoge los 18.000 euros que el Ayuntamiento se compromete a financiar en 2021.

Ondorioz, kontuan hartuta 2021eko maiatzaren 24ko Ogasun eta Ondareko Lan Batzordearen aldeko irizpena

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 24 de mayo de 2021.

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

- Udalaren betebeharrak finantzatzeko URTE ANITZEKO PLANA onestea, 2022-2023 alokairurako dirulaguntzen arabera.

- Aprobar el PLAN PLURIANUAL para la financiación de las obligaciones municipales conforme a las subvenciones al alquiler 2022-2023.

| URTEA/ AÑO | KREDITUAK/ CREDITOS | PARTIDA | ZENBATEKOA IMPORTE |
|---|---|---|---|
| 2022 | Konpromisoko kreditua Crédito de compromiso | Familiei.5.02500480.01.152.30 | 18.000,00 |
| 2023 | Konpromisoko kreditua Crédito de compromiso | Familiei.5.02500480.01.152.30 | 18.000,00 |

Taula honen arabera, adostutako jarduketen finantzaketa bermatzeko —taulan jasotako jarduketak—, Udalbatzak konpromiso-kredituak onartu beharko ditu hurrengo ekitaldietan, aurreko taulan aurreikusitako zenbatekoekin.

Según este cuadro, para garantizar la financiación de las actuaciones acordadas y recogidas en el mismo, la Corporación se obliga a aprobar créditos de compromiso en ejercicios futuros por las cantidades previstas en el cuadro anterior.

**10. Plan Estrategikoaren eranskina aldatzeko proposamena, udalerriko gazteei zuzendutako alokairu-dirulaguntzaren deialdia egiteko.**

**10. Propuesta de modificación del anexo del Plan Estratégico de subvenciones para convocar las subvenciones al alquiler dirigidas a las personas jóvenes del municipio**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 19 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 19 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

EIBARKO UDALA

Ikusita Alkatetzak egindako proposamena, 2021erako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzekoa.

Vista la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones, aprobado para el año 2021.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina aldatzea proposatzen da, udalerriko gazteei zuzendutako alokairu-dirulaguntzen deialdia berriro ateratzeko, 2016. urtetik hona eman izan diren dirulaguntzak.

Se propone modificar el anexo del Plan Estratégico de Subvenciones con el objetivo de volver a convocar las subvenciones al alquiler dirigidas a las personas jóvenes del municipio, que se han venido concediendo desde el año 2016.

Ondorioz, kontuan hartuta 2021eko maiatzaren 24ko Ogasun eta Ondareko Lan Batzordearen aldeko irizpena

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 24 de mayo de 2021.

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente

**ERABAKIA**

- Eibarko Udalaren Dirulaguntzetarako Plan Estrategikoaren Eranskinaren aldaketa onartzea, dirulaguntza-lerro hau gehituta:

**ACUERDO**

- Aprobar la modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, incorporando la siguiente línea de subvención,

| ***DIRULAGUNTZA- LERROA*** **LÍNEA DE SUBVENCIÓN** | ***XEDEAK*** **OBJETIVOS** | ***URTEKO KOSTUA*** **COSTE ANUAL** | ***FINANTZAZIOA*** **FINANCIACIÓN** | ***EMATEKO PROZEDURA*** **PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN** |
|---|---|---|---|---|
| Gazteen emantzipazioa errazteko asmoz, dirulaguntzak alokairuko | XEDEA: Gazteei beren aurreneko etxebizitza alokatzeko | 18.000 € | *Finantzaketa Udalaren beraren funtsekin egingo da, aurrekontuare* | Ebaluazio bakoiztua |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| etxebizitzak merkatuan jartzeko | laguntza ematea – Eibarko gazteei laguntzea beren lehenengo etxebizitzaren alokairuari aurre egin diezaioten. | | *n IV. kapituluaren kargu.* | |
| Subvenciones para la puesta en el mercado de alquiler de vivienda con el objetivo de facilitar la emancipación de los jóvenes. | OBJETO.- Ayuda a personas jóvenes para alquiler de su primera vivienda – ayuda a las persona jóvenes de Eibar para que puedan afrontar el alquiler de su primera vivienda, | 18.000€ | La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo IV del presupuesto. | Evaluación individualizada. |

**11. Eibarko Matxaribarren SAPUI-3 Industria Sektorearen Plan Partzialaren Ordenantza aldatzea.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 19 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

**11. Modificación de la Ordenanza del Plan Parcial del Sector Industrial Sapui 3 Matxaribarren de Eibar.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 19 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Indarrean dagoen Eibarko Matxaribarren SAPUI-3 sektorearen Plan Partzialaren bertsioa Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu zuen behin betiko 2006ko azaroaren 7an. Plan Partzialaren aurreikuspen guztiak garatu ziren, eta gaur egun poligono osoa dago eraikia.

Matxaria 40an dagoen pabiloiaren zati bateko titularrek eskatu dute Planaren Ordenantzaren 16. artikuluan material-bilketari buruz dauden aurreikuspenak aldatzeko. Artikulu horrek dakarrena hauxe da: materialak biltegiratu ahalko direla “lerrokaduren bidez definitutako espazio eraikigarriaren barruan”, eta estali ahalko direla, betiere mugakidea den espazio publikoaren “sestra azpitik geratzen badira”. Aurreikuspen hori, egiaz, bakarrik B partzelan aplika daiteke, non eraikinak finkatu ziren; baina lerrokaduren barruan jarraitzen du egoten espazio eraiki gabeko bat. Gainerako partzeletan espazio eraikigarria bete du eraikuntzak.

B partzela horretan, pabilioia pendiz handiko espazio publiko baten ondoan

La versión vigente del Plan Parcial del Sector SAPUI 3 de Matxaria fue aprobada definitivamente por la Diputación Foral de Gipuzkoa el 7 de noviembre de 2006. Se desarrollaron todas las previsiones del Plan Parcial y actualmente está edificado todo el polígono.

Se ha planteado por los titulares de parte del pabellón sito en Matxaria 40, una solicitud de cambio de las previsiones sobre almacenamiento de materiales que se contienen en el artículo 16 de la Ordenanza del Plan. Este artículo prevé que se podrán almacenar materiales dentro del espacio edificable definido por las alineaciones, y se podrán cubrir los mismos siempre que dicha cubierta quede por debajo de la rasante del espacio público colindante. Esta previsión, en realidad, sólo es aplicable a la parcela B en la que se consolidaron las edificaciones existentes, pero sigue existiendo un espacio dentro de alineaciones no edificado, en el resto de parcelas la construcción ha colmatado el espacio edificable.

En la citada parcela B, al situarse el pabellón junto a un espacio público

kokatzean, aipatutako artikulu horren aurreikuspenak modu ezberdinean eragiten die eraiki gabeko espazioei, halako moldez non espazio batzuek baduten aukerarik materialak estalkiarekin biltzeko eta beste batzuek ez.

con una fuerte pendiente, la previsión del citado artículo afecta de manera distinta a los espacios no edificados, de manera que algunos tienen oportunidad de realizar ese almacenamiento de materiales con cubierta y otros no.

Horregatik guztiagatik, B partzelaren lerrokaduren arteko espazioen aprobetxamendua eta apaingarritasuna errazteko eta partzela barruko espazio guztiek erabilera-aukera berbera izan dezaten materialak biltegiratzeko, Hirigintza Batzorde Aholkulariak onartu du hasiera ematea artikulu horren aldaketari, estalkiak ez ikusteko eskakizuna ezabatuz, eta aldameneko espazio publikotik gutxienez metro batera kokatzen badira eta eraikinaren sestraren azpitik, espazio horiek erabiltzeko aukera emanez.

Por todo ello, para facilitar el aprovechamiento y adecentamiento de los espacios dentro de alineaciones de la parcela B y para procurar que todos estos espacios dentro de la parcela tengan la misma oportunidad de uso para almacenamiento de materiales, se ha aprobado por la Comisión Asesora de Urbanismo iniciar la modificación del citado artículo, eliminando la exigencia de que no sean visualmente perceptibles dichas cubiertas, y añadiendo la posibilidad de que se puedan utilizar cuando se sitúen al menos a un metro del espacio público colindante y por debajo de la rasante del edificio.

Hizpide dugun artikulua Plan Partzialaren ordenantza arautzaileen parte da; eta 2. artikuluaren arabera, ordenantzek “lursailen eta eraikuntza publikoen nahiz pribatuen erabilerari buruzko alderdi guztiak arautzen dituzte”. Beraz, hirigintza-antolamenduaren

El artículo en cuestión forma parte de las ordenanzas reguladoras del Plan Parcial, que según el artículo 2 regulan aquellos aspectos relativos al uso de los terrenos y de la edificación tanto públicos como privados. Se trata, por tanto, de ordenanzas

ordenantza osagarriak dira, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 75. artikuluan araututakoak, besteak beste, "ezaugarri morfologikoak eta estetikoak xehe-xehe" arautzeko helburua dutenak, "ez hirigintzako eraikigarritasuna ez lurzoruaren zertarakoa definitzen ez duten baldintza guztiak." Zehazki, eraikinik gabeko partzela pribatu batean materialak biltegiratzeko alderdi estetikoak arautzen ditu.

complementarias de la ordenación urbanística, de las reguladas en el artículo 75 de la ley 2/2006 de suelo y urbanismo que tienen por objeto entre otros aspectos la regulación pormenorizada de los aspectos morfológicos y estéticos y las restantes condiciones no definitorias ni de la edificabilidad urbanística ni del destino del suelo. Este artículo en concreto, regula los aspectos estéticos del almacenamiento de materiales en parcela privada no ocupada por edificación.

Beraz, hura aldatzeko 2/2006 Legearen 99. artikuluaren aurreikuspena aplikatuko da, zeinak hala ezartzen baitu: *Hirigintza eta eraikuntzako udal ordenantzak edo plan orokorreko dokumentazioan dauden ordenantzen aldaketak udalak egingo ditu, eta toki-erregimenari buruzko araudian udal-ordenantzetarako ezartzen den prozeduraren arabera izapidetu eta onartuko dira.*

Se aplicará por tanto a su modificación la previsión del artículo 99 de la ley 2/2006 que establece que: *Las ordenanzas municipales de edificación y urbanización o la modificación de las contenidas en la documentación de un plan general se formularán por el ayuntamiento y se tramitarán y aprobarán por el procedimiento establecido en la normativa de régimen local para las ordenanzas municipales.*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikuluan araututako prozedura aplikatuko da.

Se aplicará el procedimiento regulado en el artículo 49 de la ley 7/1985 de bases de régimen local:

- Udal Osoko bilkurak hasierako onespena ematea.

- Aprobación inicial por el Pleno.

- Informazio publikoa eta entzunaldia interesatuei hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Horretarako, hasierako onespenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da, Ordenantza ikusteko non jarriko den eta alegazioak aurkezteko epea zehaztuta (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, 87. art.).

- Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta Udalbatzak behin betiko onartzea.

- Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da ordura arte behin-behinekoa zen erabakia.

- Testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta argitaratzen denetik 15 egun baliodunek o epean indarrean jartzea.

Izapide horiez gain, Herri Administrazioen Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 133. artikuluak —VI. tituluaren zazpigarrena eta azkena— «Herritarrek lege-mailako

- Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días, para la presentación de reclamaciones y sugerencias. A tal efecto se anunciará el acuerdo de aprobación inicial en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, señalando el lugar de exhibición de la Ordenanza y determinando el plazo para formular alegaciones (art. 87 LRJPA).

- Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno.

- En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

- Publicación del texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y entrada en vigor a los 15 días hábiles desde la publicación.

Además de estos trámites, el art. 133, séptimo y último del Título VI de la ley 39/2015 de procedimiento común de las Administraciones Públicas, titulado «Participación de los ciudadanos en el

arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea» izenekoak, lau atal ditu, honako hau ezartzen dutenak:

- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez.
- Ekimenaren testua idatzi aurreko kontsultaren kalterik gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoei eragiten dienean, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko.

procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos», se compone de cuatro apartados que establecen lo siguiente:

- Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente.
- Sin perjuicio de la consulta previa a la redacción del texto de la iniciativa, cuando la norma afecte a los derechos e intereses legítimos de las personas, el centro directivo competente publicará el texto en el portal web correspondiente, con el objeto de dar audiencia a los ciudadanos afectados.

Salbuespen gisa, artikuluaren 4. atalak zera arautzen du: arau-proposamenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez daukanean, xede dituen hartzaileei betebehar handirik ezartzen ez dienean edo gai baten alderdi partzialak arautzen dituenean, egin gabe utz daitezke artikulu honen lehenengo zenbakian araututako kontsulta publikoa.

Como excepción se regula en el apartado 4º del artículo que cuando la propuesta normativa no tenga un impacto significativo en la actividad económica, no imponga obligaciones relevantes a los destinatarios o regule aspectos parciales de una materia, podrá omitirse la consulta pública regulada en el apartado primero.

Kasu honetan, aldaketa-proposamenak ez die eragiten pertsonen eskubide eta interes legitimoei, egiten duen gauza bakarra da lursail pribatu batean

En el presente supuesto, por un lado la propuesta de modificación no afecta a derechos e intereses legítimos de las personas, sino que tan sólo se

materialak biltegiratzearen ezaugarriak arautzea, haien titularrek aldaketa eskatu baitute; beraz, ez da irizten beharrezkoa denik eragindako herritarrei entzutea.

regula las características del almacenamiento de materiales en un terreno privado, cuyos titulares han solicitado la modificación, no se entiende por tanto que sea necesaria la audiencia a los ciudadanos afectados.

Bestalde, aldaketak ez du eragin nabarmenik jarduera ekonomikoan, hartzaileei ez die inolako betebeharrik ezartzen eta gaiaren alderdi oso partzial bat arautzen du, Matxariako industrialdearen antolamendua, alegia. Beraz, aipatutako artikuluaren 4. atalean araututako salbuespenean dago eta ez da beharrezkoa kontsulta egitea.

Por otro lado la modificación no tiene impacto significativo en la actividad económica, no impone ninguna obligación a los destinatarios, y regula un aspecto muy parcial de la materia, que sería la ordenación del polígono industrial de Matxaria. Por tanto se encuentra en la excepción regulada en el apartado 4. Del artículo por lo que tampoco es necesaria la consulta.

Espedienteari egindako txostenak gehituta, kontuan hartuta 2021eko maiatzaren 25eko Hirigintza, Obra eta Ingurumen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Incorporado al expediente los informes emitidos, considerando el dictamen favorable Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente de 25 de mayo de 2021,

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

1. Hasiera batean onestea Matxariako SAPUI 3 sektoreko Plan Partzialaren Hirigintza Ordenantzen 16. artikuluaren

1. Aprobar inicialmente la Modificación Puntual del artículo 16.de las Ordenanzas Urbanísticas del Plan Parcial del Sector SAPUI 3 de

aldaketa puntuala. Hona hemen testu berria:

**16. ARTIKULUA (aldatua)**

Lurzati bakoitzean baimenduta dagoen gehieneko eraikigarritasuna zenbatzeko orduan, aprobetxamendutzat hartuko da lerrokaduren bidez definitutako espazio eraikigarriaren barruan kokatzen den edozein azalera estali, material-bilketa izan ezik —eta kasu horretan, aire zabalean egiten bada nahiz erraz desmuntatzen diren elementu arinez estali ***eta alboko paramentu ez-opakoekin ixten bada, hau da, saretekin edo antzeko elementuekin—,*** betiere, mugakide duen espazio publikoaren sestratik behera geratzen bada ***edo handik metro batera eta mugakide den eraikineko azken forjatuaren sestraren azpitik geratzen bada.***

2. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluaren arabera jendaurrean uzten da, eta iragarki hau GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematen den egunetik aurrera hogeita hamar eguneko epea dago espedientea aztertu eta egin nahi diren

Matxaria, cuyo nuevo texto sería el siguiente:

**ARTÍCULO 16.- (modificado)**

Se entenderá como aprovechamiento a efectos del cómputo de edificabilidad máxima autorizada en cada parcela cualquier superficie cubierta que se sitúe dentro del espacio edificable definido por las alineaciones, salvo el almacenamiento de materiales, bien sea este a la intemperie o se cubra con elementos ligeros fácilmente desmontables ***y se cierre con paramentos laterales no opacos como celosías o elementos similares,*** siempre que quede por debajo de la rasante del espacio público colindante ***o bien se retranquee respecto de este un metro y quede por debajo de la rasante del ultimo forjado del edificio colindante*****.**

2. De conformidad con el artículo 49 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local se hace público para que en el plazo de treinta días a partir de la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa pueda examinarse el expediente y

alegazioak eta bidezkoak irizten diren iradokizunak egiteko.

presentarse las alegaciones y sugerencias pertinentes.

3. Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aldaketa hau behin betiko onartutzat hartuko da beste akordio berririk hartzeke.

3. En el caso de que no se presentase ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobada la modificación sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

**12. ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK taldeak aurkeztu duen mozioa, pobrezia menstrualari buruz.**

**12. Moción presentada por el Grupo ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK sobre la pobreza menstrual.**

BOZKETAREN EMAITZA: EZ ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: NO APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.
KONTRAKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5).
ABSTENTZIOAK: EH Bildu (5).

VOTOS A FAVOR: 1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.
VOTOS EN CONTRA: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5).
ABSTENCIONES: EH Bildu (5).

## POBREZIA MENSTRUALA AMAITZEKO MOZIOA

### ARRAZOIEN AZALPENA

Zer da pobrezia menstruala? Honela definitzen da: hilekoaren odol-jarioa jasotzeko produktu egokirik ez izatea, xaboirik eta ur edangarririk ez izatea, eta garbitzeko leku segururik eta saneaturik ez izatea. Gainera, hilekoak berekin gordetzen duen tabua, mito faltsuak eta

## MOCIÓN PARA ERRADICACIÓN DE LA POBREZA MENSTRUAL

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

¿Qué es la pobreza menstrual? Se define como la falta de acceso a productos adecuados para la recogida del sangrado menstrual, la falta de jabón y agua potable, así como la falta de lugares seguros y saneados para el aseo. Además se añade el tabú que

berekin dakarren estigma gehitzen dira, eta horiek guztiek zaildu egiten dute gai hau premiazkotzat hartzea. Gaur egun, 1.132.495 emakume daude Euskadin (EUSTAT, 2020ko urtarrileko datuak). Baina kontuan izanik 12 eta 55 urte bitarteko emakumek dutela hilekoa, Euskadiko biztanleria osoaren %30 hilekoa izaten ari da hilero.

Hilekoa izatea, gaur egun ere, intimotzat, pribatutzat edo, gehienez ere, "emakumeen gauzatzat" hartzen da. Hala ere, soziala, kulturala eta politikoa ere bada. Eta esparru politikoan jarri nahi dugu arreta; izan ere, sistema kapitalista eta neoliberal honek pertsonaren izaera produktiboa baino ez du kontuan hartzen, eta ez ditu bere izaera eta behar fisiologikoei erreparatzen, eta alde batera uzten ditu hain naturala den hilekoa eta berekin dakartzan zainketak. Hilekoaren higienerako produktuak premia handiko produktuak dira, nahiz eta ez diren halakotzat hartzen. Egoera horrek, desinformazioarekin, heziketarik ezarekin eta hilekoaren inguruan sortutako mitoekin batera, eragin dute pobrezia menstruala hain hedatuta egotea.

Une honetan, non COVID-19aren krisiak eraginda, pobreziaren atalasearen

encierra la menstruación, los falsos mitos y el estigma que supone. En la actualidad, hay 1.132.495 mujeres en Euskadi (datos EUSTAT de enero de 2020). Teniendo en cuenta que, generalmente, las mujeres menstruan entre los 12 y los 55 años, aproximadamente el 30% de la población total de Euskadi está menstruando mensualmente.

El hecho de menstruar es considerado aún hoy, como algo íntimo, privado o, como mucho, una “cosa de mujeres”. Sin embargo, es social, cultural y político. Y es en el marco político donde buscamos poner el foco, ya que este sistema, capitalista y neoliberal sólo contempla el carácter productivo de la persona, y no pone el foco en su propia naturaleza y necesidades fisiológicas, y obvia una característica tan natural como la menstruación y los cuidados que debemos prestarle a la misma. Los productos de higiene menstrual son productos de primera necesidad y a pesar de ello no están considerados como tal. Esta situación, junto con la desinformación, la falta de educación y los mitos creados en torno a la menstruación, dan lugar a que exista una extendida pobreza menstrual.

En un momento como el que atravesamos marcado por la crisis de

azpitik dauden pertsonen kopurua hazten ari den, non familia askok ez duten diru-sarrerarik jasotzen eta zailtasun handiak dituzten oinarrizko beharrak asetzeko, pobrezia menstrualari ere erreparatu behar zaio. Hain zuzen arazo hori areagotu egin da pandemiaren ondorioz, ez baita bermatzen premia handiena dutenen artean hilekoaren higiene-produktuak banatuko direnik, produktu horiek eskuratzeko oinarrizko beharraren ikusezintasuna dela-eta.

la COVID-19, en el que el número de personas por debajo del umbral de la pobreza está creciendo, y en el que muchas familias están dejando de percibir ingresos y tienen graves dificultades para cubrir sus necesidades básicas, también se debe poner el foco en la pobreza menstrual. Y es que esta problemática se ha acrecentado debido a la pandemia, ya que no se está asegurando la distribución de productos de higiene menstrual entre las personas más necesitadas, dada la invisibilización de la necesidad básica que supone el poder acceder a dichos productos.

Ezin da onartu gure lurraldean pobrezia mota hori egon arren, hezkuntza menstruala azpimarratzen duen eta hilekoaren higiene-produktuak doan eskuratzea ahalbidetzen duen politikarik ez egotea. Gutxienez, premia biziko produktutzat har daitezela, eta, beraz, aplikatzen zaien BEZa murritz dakiela. Izan ere, produktu horiek eskuratzeko ezintasunak eragin zuzena du hilekoa dutenen eguneroko bizitzan.

No es admisible que existiendo tal pobreza en nuestro territorio, no existan políticas que hagan hincapié en la educación menstrual y que faciliten el acceso de manera gratuita a los productos de higiene menstrual. O al menos que se consideren como productos de primera necesidad, y por tanto se reduzca el IVA que se les aplica. Ya que la imposibilidad de acceder a estos productos tiene un impacto directo en la vida diaria de quienes menstrúan.

Erkidego aurreratua eta berritzailea garen aldetik, gure erantzukizuna pobrezia menstrual hori arintzea izan beharko litzateke, ikasketa-zentro,

Como autonomía avanzada e innovadora que nos consideramos, debería ser nuestra responsabilidad paliar esta pobreza menstrual

erakunde edo espazio komun guztietan hilekoarentzako konpresak, tanpoiak edo hileko-kopak eskuratzeko aukera bermatuz, bai eta herritarrak hilerokoarekin lotutako gaietan sentsibilizatuz eta prestatuz ere.

garantizando el acceso a compresas, tampones o copas menstruales en todos los centros de estudios, instituciones o espacios comunes, al igual que sensibilizar y formar a la población en cuestiones relacionadas con la menstruación.

Ondorioz ondoko akordioa hartzeko proposatzen dio Udalbatzari

En consecuencia, propone al Pleno la adopción de los siguientes:

**AKORDIOAK**

**ACUERDOS**

1.- Udalbatzari eskatzea hilekoaren inguruan ume eta gaztetxoentzako sentsibilizazio eta formakuntza kanpainak egiteko konpromisoa har dezala. Besteak beste, honako gaiak sartuz: osasun menstruala, pobrezia menstruala eta hilekoaren inguruan dauden mito eta tabuen jatorria. Horrela, gazteenek ez dute jarraituko hilekoaren inguruko desinformazio, estigma eta desberdintasunak transmititzen eta iraunarazten.

1.- Instar a la Corporación Municipal a que adopte el compromiso de crear y fomentar campañas de sensibilización y formación entre niñas, niños y adolescentes en torno a la educación menstrual. Incluyendo temáticas como la promoción de la salud menstrual, la existencia de la pobreza menstrual y el origen de los mitos y tabúes existentes en torno a la menstruación. Para que de esta manera los y las más jóvenes no sigan siendo agentes transmisores y perpetuadores de la desinformación, los estigmas y desigualdades que supone el hecho de menstruar.

2.- Udalbatzari eskatzea hilekoaren higiene-produktuen doako banatzaileak jartzeko hezkuntza-zentroetan, emakumeen etxeetan, zentro zibikoetan, kirol-instalazioetan, liburutegietan, mediku-kontsultategietan eta, oro har,

2.- Instar a la Corporación Municipal a dotar de dispensadores gratuitos de productos de higiene menstrual a centros de educación, casas de las mujeres, centros cívicos, instalaciones deportivas, bibliotecas,

Administrazio Publikoaren eremuetan. Horrela bermatuko da-eta produktuak doan eskuratu ahal izango dituela horien beharra duen orok.

consultorios médicos y en general a espacios pertenecientes a la Administración Pública. Garantizando así el acceso gratuito de dichos productos a toda aquella persona que los necesite.

3.- Udalbatzari eskatzea Administrazioko gune guztiek hilekoaren higienerako azpiegiturak eta espazio egokiak eta ondo seinaleztatuak izango dituztela bermatzeko; arreta berezia jarriko da gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonek horrelako azpiegitura, espazio eta zerbitzuak eskuragarri izateko neurriak hartuko direla bermatzeko eta produktu horien eskuragarritasun unibertsala bermatzeko.

3.- Instar a la Corporación Municipal a garantizar que todos los espacios de la Administración Pública cuenten con infraestructuras y espacios óptimos, con una señalización adecuada, para la higiene menstrual, haciendo especial hincapié en la adopción de medidas que garanticen el acceso a este tipo de infraestructuras, espacios y servicios a las personas en situación o riesgo de exclusión social y en garantizar la accesibilidad universal a los mismos.

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea Euskadi mailako azterlan espezifiko bat egin dezala pobrezia menstrualari buruz, diagnostiko gisa balioko duena, eta aplikatu beharreko politika publikoen gomendioak eman ditzala.

4.- Instar al Gobierno Vasco a solicitar la elaboración de un estudio específico a nivel de Euskadi sobre la pobreza menstrual que sirva de diagnóstico y contenga recomendaciones de políticas públicas de aplicación.

5.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea, bere eskumenen eremutik, hilekoaren higiene-produktuen kostua murrizteko edo doakotasuna lortzeko estatuko ekimen guztiei babesteko, laguntza emanez produktu horiei BEZ supermurriztua aplikatu dakien edo

5.- Instar al Gobierno Vasco a, desde su ámbito competencial, apoyar todas las iniciativas estatales que impliquen la reducción o gratuidad en el coste de los productos de higiene menstrual, apoyando tanto la aplicación del IVA superreducido a estos productos como su gratuidad completa.

produktu horien erabateko doakotasuna lor dadin.

**GAI-ZERRENDATIK KANPO**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta urgentziazko aitorpena egin ondoren, aho batez berretsia, honako gai hauek aztertu dira:

**A) PSE-EE-PSOE eta EAJ-PNV udal taldeak Elkarrekin Podemosek hilekoaren pobreziari buruz erregistratutakoaren Mozioari aurkeztutako erdibideko mozioa**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5).

KONTRAKO BOTOAK: 1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.
ABSTENTZIOAK: EH Bildu (5).

Eibarko Udalak eskatzen dio

**FUERA DEL ORDEN DEL DÍA**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia ratificada por unanimidad, se pasan a tratar los siguientes asuntos:

**A) Moción ALTERNATIVA de los grupos municipales PSE-EE (PSOE) y EAJ-PNV a la registrada por Elkarrekin Podemos relativa a la pobreza menstrual:**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5).1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.
VOTOS EN CONTRA: 1 - Elkarrekin Eibar-Podemos.
ABSTENCIONES: EH Bildu (5).

El Ayuntamiento de Eibar insta:

1- Eusko Jaurlaritzari, pobreziaren aurka borrokatzeko politikak eta neurriak garatzen jarrai dezan, duela hiru hamarkada pobreziaren aurka borrokatzeko lehen plana abian jarri zenetik egiten ari den bezala.

2- Eusko Jaurlaritzari, erakunde eskudunek txosten bat egin dezaten "tasa arrosa" deritzonak euskal merkatuan duen eraginari eta irismenari buruz —produktuen eta zerbitzuen egoera zabal bat eta haien prezioa barne hartuta—; eta, hala badagokio, txosten bat egin dezala, eskumen-esparru ezberdinetan ezar litezkeen jarduketa edo ekintzei buruz, bai politikoak bai instituzionalak, tasa hori kentzeko, txosten horren berri Eibarko Udalari emanez.

3- Estatuko Gobernuaren erakunde publikoei, halaber, txosten bat egin dezaten "tasa arrosa" deritzonak estatuko merkatuan duen eraginari eta irismenari buruz —produktuen eta zerbitzuen egoera zabal bat eta haien

1. Al Gobierno Vasco a que continúe desarrollando políticas y medidas de lucha contra la pobreza, tal y como viene haciéndolo desde que se puso en marcha el primer plan de lucha contra la pobreza hace tres décadas.

2. Al Gobierno Vasco a fin de que los organismos competentes realicen un informe sobre la existencia, alcance e incidencia de la llamada "tasa rosa" en el mercado vasco, que incluya un amplio estudio de los productos y servicios afectados y su precio, y en su caso realice un informe de las actuaciones o acciones, tanto políticas como institucionales, en los diferentes ámbitos competenciales, que pudieran implementarse para la supresión de la misma, dando traslado del mismo al Ayuntamiento de Eibar.

3. A los organismos públicos del Gobierno del Estado a realizar asimismo un informe sobre la existencia, alcance e incidencia de la llamada "tasa rosa" en el mercado estatal, que incluya un amplio

prezioa barne hartuta—; eta, hala badagokie, txosten bat egin dezaten erakunde horiek "tasa arrosa" deiturikoa merkatutik behin betiko ezabatzen laguntzeko egin ditzaketen jarduera edo ekintza politiko eta instituzionalei buruz.

estudio de los productos y servicios afectados y su precio, y en su caso realice un informe de las actuaciones o acciones, tanto políticas como institucionales, que desde dichos organismos pudieran llevarse a cabo para coadyuvar en la definitiva eliminación del mercado de la denominada “tasa rosa”.